

2014ko OTSAILAREN 13ko BILKURA BEREZIA

LEHEN DEIALDIA

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hamalauko otsailaren hamairuko hemeretziatan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura berezia egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

María Isabel Cañada Zorrilla
Cristina Larrea Irigoyen
Juan José Echavarren Salvador
Juan Manuel Nagore Mina
Miguel Angel Cervantes Aranz
Javier Idiazabal Chourraut

Idazkaria: Loreto Echavarren Sanz a.

Ibarreko kultur gunea egiteko kontratazio espedientea

1.- Ikusirik Artzibarko Kultur-Gunea komunitateko publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez hornitzeko kontratazio espedientea zein egoeran dagoen.

Hartara zabaldu zen epean 3 enpresari eskaintzak aurkeztea eskatu zitzaieela kontuan hartuta, honako proposamenak jaso egin dira:

1.- Side Equipamiento S.I., J71011191 IFZ eta helbidea Erreniega parkea 13, behea, Zizur Nagusia (Nafarroa) P.K. 31180 dituen.- Proposamen Ekonomikoa: 11.679,97 €(hamaika mila, seirehun eta hirurogeita hemeretzi euro eta laurogeita hamazazpi céntimo), bez kanpo, gehi 2.452,79 €(bi mila lauhun eta berrogeita hamabi euro eta hirurogeita hemeretzi céntimo) bezaren %21ari dagozkionak.

2.- Joyn Soluciones de Mobiliario S.L. B75101089 IFZ eta helbidea Akarregi Industrialdea 10 1. 111 bulegoa, Hernani (Guipúzcoa) 20120 P.K. dituen.- Proposamen Ekonomikoa: 11.712,12 € (hamaika mila, zazpirehun eta hamabi euro eta hamabi zentimo), bez kanpo, gehi 2.459,54 €(bi mila lauhun eta berrogeita hemeretzi euro eta berrogeita hamalau zentimo) bezaren %21ari dagozkionak.

3.- Zq Diseño Interior S.L.U. B71113583 IFZ eta helbidea Idoia plaza 13 1. esk. Zizur Nagusia (Nafarroa) 31180 PK dituen.- Proposamen Ekonomikoa: 11.691,34 €(hamaika mila, seirehun eta laurogeita hamaika euro eta hogeita hamalau zentimo), bez kanpo, gehi 2.455,18 € (bi mila lauhun eta berrogeita hamabost euro eta hemeretzi céntimo) bezaren %21ari dagozkionak.

Eta adjudikaziorako onetsitako Baldintza Administratiboen Pleguaren 7. baldintzan ezarritako irizpideen arabera baloratu ondoren, hots, eskainitako prezioa.

Aho batez erabaki da:

1.- Lizitazio ekitaldia baliozkotzat ematea eta aipatutako proposamenak onartzea.

2.- Artzibarko Kultur Gunean hornitzeko publiziterik gabeko prozedura negoziatua Side Equipamiento S.L.-ri adjudikatzea; haren IFZ J71011191 da eta helbidea Erreniega parkea 13, behea, Zizur Nagusia (Nafarroa) P.K. 31180, udalaren interesentzako proposamen ekonomikorik hoberena delako, hau da, 11.679,97 €(hamaika mila, seirehun eta hirurogeita hemeretzi euro eta laurogeita hamazazpi zentimo), bez kanpo, gehi 2.452,79 €(bi mila lauhun eta berrogeita hamabi

euro eta hirurogeita hemeretzi zentimo) bezaren %21ari dagozkionak eta adjudikazioa egiteko onetsitako Baldintza Administratiboen Pleguan ezarritako baldintzen arabera.

3°.- Side Equipamiento S.I. delakoari erabaki honen berri ematea.

4°.- Gainontzeko lizitatzailerei erabaki honen berri ematea eta parte hartu izana eskertzea.

5.- Alkateari ahalmena ematea erabaki honetatik sortutako dokumentu guztiak sinatzeko.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hogeita bata eta hogeita hamar minutuan eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut